

ETXEKO ZABORRA ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU, TRATATU ETA DESAGERRARAZTEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren III. Tituluak ematen dituzten ahalmenak erabiliz eta lurralde historikoetako erakunde eskudunei zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko, Ekonomi Itunak aitortzen dizkien eskumenekin eta Toki Ogasunak arautzen dituen Bizkaiko Lurralde Historikoaren abenduaren 19ko 9/2005 Foru Arauarekin bat etorriz, Udalak «etxeke zaborra eta hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasak» ezarri ditu. Tasa horretan ordenantza fiskal hau izango da aginduzko.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. artikulua

1. Tasaren zergapeko egitate da etxeetako zaborra eta etxebizitza, ostatu eta industria, merkataritza, lanbide, arte edo zerbitzu jarduerak egiten dituzten lokal edo establezimenduetako hiri hondakin solidoak nahitaez hartu eta biltzeko zerbitzua.

2. Ondore horretarako, etxeetako zabor eta hiri hondakin solidotzat hartuko dira lokal edo etxebizitzetako garbiketa arruntetik sortutako botakinak, janari hondakinak eta detritusak. Beraz, kontzeptu horretatik kanpo daude industriako hondakinak, obra-hondakinak, giza detritusak eta gai edo material kutsatu, korrosibo eta arriskutsu guztiak, edo higiene, profilaxi edo segurtasunaren aldetik neurri bereziak hartzea eskatzen dutenak.

3. Zaborra biltzeko zerbitzua erabili nahi duten lantegiek eta fabrikek Alkatetza-Udalburutzari eskatu beharko diote, eta zerbitzuaren erabilgarritasuna ikusita, bidezkoa dena erabakiko du.

4. Alkatetzak horretarako ematen dituen zaintza arauetan ezarritako moduan egingo da zaborra biltzeko zerbitzua.

III. DERRIGORTASUNA

3. artikulua

Zerbitzuaren izaera higieniko-sanitarioa tarteko, berau hartu behar da derrigorrez, eta beraz, interesdunek ezin izango dute zerbitzuaren emakidaren inguruan ezer xedatu.

IV. SUBJEKTU PASIBOA, ERANTZULEAK ETA ONDORENGOTZA

4. artikulua.- SUBJEKTU PASIBOA

a) Zerga honetako subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34 eta 35. artikuluek aipatutako pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua ematen den toki, plaza, kale edo bide publikoetako etxebizitza eta lokalak okupatu edo erabiltzen badituzte, hala jabe, gozamendun edo errentari gisa nola jabariko mugadun eskubide errealeko beste edozein tituluz ere.

Nolanahi ere, subjektu pasibotzat jo daiteke aipatu etxebizitza edo lokalen jabe bakarra, baldin eta eskakizun hauek betetzen baditu:

- Higiezin baten elementu guztien jabe bakarrak borondatez eta idatziz eskatzea.
- Guztira sortzen den kuota kuota partzial guztiak batzearen emaitza izatea.
- Salbuespena eskatzeko arrazoia izatea lokal edo etxebizitzaren okupazioak eta gozamenduak oinarri dituzten tituluak aldi baterakoak direla.

b) Zergadunaren ordezeko subjektu pasibotzat joko da etxebizitza edo lokal horien jabea, eta bidezkoa bada, zerbitzuaren hartzaileei ordainarazi ahal izango dizkie kuotak.

5. artikulua.- ERANTZULEAK

1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidaritatez aurre egingo diete Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoek.

2. Erantzule subsidiarioak izango dira sozietate eta sindikatuetaiko administratzaileak, eta porrot egoeretako, lehiaketetako, sozietateetako eta erakundeetako kontu-hartzaileak edo likidatzaileak, oro har, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan adierazten den kasuetan eta irismenarekin.

3. Pertsona fisikoek, sozietateek eta erakunde juridikoek gauzatzen dituzten ustiapen eta jarduera ekonomikoen zorrak eta zerga erantzukizunak, horien titularitatean, eta edozein kontzeptu dela eta, ordeztzen dutenei eskatzekoak izango dira.

4. Titularitate hori bere gain hartu nahi duenak, gaurko tituludunaren adostasuna aurretik izanik, eskubidea izango du administrazioari aurreko atalean aipatzen diren ustiapen eta jardueren ondorioz sortutako zerga zor eta erantzukizunen ziurtagiri zehatza eskatzeko. Ziurtagiri horren edukia ezezkoa izango balitz, edo bi hilabeteko epean emango ez balitz, eskatzailea artikulua honetan finkatzen den erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

V. TARIFAK ETA TASAK

6. artikulua

Tasa hau kobratuko da zerbitzua emateagatik:

- 0 tarifa: gutxieneko pentsioa jasotzen duten erretiratuek okupatutako etxebizitza, bakarrik bizi badira edo beste diru-sarrerarik jasotzen ez duten senideekin bizi badira. Ondore horietarako, gutxieneko pentsioa jasotzen duten erretiratutzat hartuko dira urterik urte indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoa jasotzen dutenak.
- 1 tarifa: etxebizitzak.
- 2 tarifa: janari-dendak, arrandegiak, frutategiak, harategiak, hotelak, pentsioak, tabernak, kafetegiak, gasolindegiak, automobil eta motorren konponketa-garbiketa, bankuak eta aurrezki eta kreditu erakundeak eta, oro har, zerbitzu establezimenduak eta artikulua galkorretako dendak.
- 3 tarifa: etxebizitzak ere diren profesionalen lokalak.
- 4 tarifa: jarduera profesionalen lokalak.
- 5 tarifa: beste saltoki batzuk.
- 6 tarifa: irakaskuntzarako lokalak, ikastetxeak eta horien egoitzak.
- 7 tarifa: erlijio, kirol eta kultur erabilerarako lokalak eta establezimendu publikoak.
- 8 tarifa: osasun establezimenduak.
 - 9 tarifa: bestelakoak (komunitateko garajeak eta aurreko tarifetan sartzen ez diren lokalak).
- 10 eta 11 tarifak: industriak, biltegiak eta gordetegiak barne.

TASAK

A) Etxebizitzetarako tasaren kostua (0 eta 1 tarifak) urtean zenbateko finkoa izango da.

B) Gainerako establezimenduetarako tasaren kostua lokal bakoitzeko izango da, eta urtean zenbateko finkoa ordainduko da bide publikoaren kategoriaren arabera. Ondore horretarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako adierazitakoak hartuko dira oinarri, baita lokalaren jardueran ere, gehi zenbateko bat metro koadroko, lokaleko azalera osoaren arabera.

C) Aurreko atalaren ondoreetarako, 2, 3, 4, 5, 10 eta 11 tarifetarako azalera osotzat joko da halakotzat agertzen dena Jarduera Ekonomikoen gaineko Udal Zergan; 6, 7, 8 eta 9 tarifetarako, aldiz, hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Katastroan ageri den eraikitako azalera osoa hartuko da kontuan.

TARIFA	EU/u	EURO/m2/urte
ERRETIRATUAK	32,75	
ETXE BIZITZAK	77,03	
SALTOKIAK	373,48	1,76
ETXE BIZITZA ERE DIREN LOKAL PROFESIONALAK	134,85	0,81
JARDUERA PROFESIONALETARAKO LOKALAK	265,81	1,06
BESTE SALTOKI BATZUK	265,81	1,06
IRAKASKUNTZA, IKASTETXEAK ETA EGOITZAK	130,96	0,41
ERLIJIO, KULTUR, KIROL ERABILERA	115,54	0,21
OSASUN ESTABLEZIMENDUAK	130,96	0,41
BESTELAKO LOKALAK: KOMUNITATEETAKO GARAJEAK, ETAB.	165,68	0,51
BILTEGIAK ETA INDUSTRIAK > 500 m2	373,48	0,51
BILTEGIAK ETA INDUSTRIAK < 500 m2	373,48	1,12

VI. SORTZAPENA ETA KOB RATZEA

7. artikulua.- SORTZAPENA

Tasa bera eta zerga ordaintzeko betebeharra sortu egiten dira kargari lotuta dauden zerbitzuen prestazioa hasten denean; ondore horietarako, zerbitzua derrigorrez hartu behar denez, hasiera gertatzen dela ulertzen da prezio publikoari loturiko zergadunek erabiltzen dituzten etxebizitzetako edo lokaletako kaleetan edo tokietan, etxeke zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta martxan dagoenean.

Aipatu zerbitzua ezarrita eta abian jarriz gero, kuotak sortuko dira hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean, tasaren sortzapena aipatu data baino geroago denean izan ezik, kasu horretan hurrengo hiruhileko lehen egunean sortuko da lehen kuota.

8. artikulua.- KOB RATZEA

Tasa hiru hilean behin kobratuko da, ur-horniduraren tasarekin batera. Hala ere, alkateak dekretuz agin dezake tasa bi hilean behin kobratzea.

VII. HUTS EGITEN DUTEN PARTIDAK

9. artikulua

Huts egin duten partidatzat edo kreditu kobraezintzat hartuko dira premiamenduzko prozeduraren bidez kobratu ezin izan ez diren kuotak; horiek aitortzeko, dagokion espedientea formalizatuko da, indarrean den Bizkaiko Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Araubidean eta Udal Ordenantza Fiskal Orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. artikulua

Zerga mailako arau-hausteak eta horiei dagozkien zehapenak kalifikatzeari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio , Udal Ordenantza Fiskal Orokorrek agintzen duen legez.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2019ko urriaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez aldatu da; 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. Ordenantza Fiskal honen zati bat aldatzen bada, aldatu ez diren artikuluek indarrean jarraituko dute.

Aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo aplikazio zuzeneko beste edozein arauk edo xedapenek tasaren erregulazioan eragiten dituzten aldaketek, hala balegokio, dagokion isilbidezko aldaketa eragingo dute Ordenantza Fiskal honetan.